Bizkaia foru aldundia diputación foral

11/2022 EBAZPENA, urriaren 25ekoa.

RESOLUCIÓN 11/2022, de 25 de octubre.

PRESIDENTEA: Juan Carlos González Olea.

PRESIDENTE: Juan Carlos González Olea.

MAHAIKIDEA: Amaia Zurbano-Beaskoetxea Laraudogoitia.

VOCAL: Amaia Zurbano-Beaskoetxea Laraudogoitia.

IDAZKARIA: Iñigo Alvear Lekue

SECRETARIO: Iñigo Alvear Lekue.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordeak, arestian aipatutako kideek osatua dagoenak, EBAZPEN hau eman du izenean eta ordazkaritzan eta Bizkaiko Katastroko Zuzendaritza Nagusiaren 2022ko uztailaren 14ko erabakiaren aurka aurkeztutako erreklamazioari dagokionez; erabaki horren bidez baztertu zen informazio publikoa eskuratzeko eskaera. Txostengilea Amaia Zurbano-Beaskoetxea Laraudogoitia andrea izan da eta Batzordearen iritzia adierazi du.

La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, compuesta por los miembros anteriormente expresados, ha dictado la siguiente RESOLUCIÓN ante la reclamación formulada por , en nombre y representación de contra acuerdo de la Dirección General de Catastro de Bizkaia de 14 de julio de 2022, por la que se desestima la solicitud de acceso a información pública. Actúa como ponente Doña Amaia Zurbano-Beaskoetxea Laraudogoitia, quien expresa el parecer de la Comisión:

## EGITATEZKO AURREKARIAK

## ANTECEDENTES DE HECHO

LEHENENGOA.- 2022ko ekainaren 21ean,

ordezkari gisa, informazio publikoa jasotzeko eskaera egin zion Bizkaiko Foru Aldundiari. Eskaera horretan honako hauek emateko eskatzen zuen "(…) *Gernika-Lumoko Juan Calzada kaleko 5. zenbakian, N9379825S eta N9379826D zenbaki finkoekin identifikatutako 8 eta 9 zenbakidun garaje-partzelen katastro-espedientearen kopia osoa, grafikoa eta dokumentala, Katastroan elementu horiek duten "altatik" gaur egun arte, hala badagokio eskatutako katastroko informazioan horien "altatik" gaur arte gertatu diren aldaketak jasoz.*"

BIGARRENA. 2022ko uztailaren 14an, Katastroa eta Zerbitzuen zuzendari nagusiak ebazpena eman zuen; ebazpen horren bidez aurreko eskaera ezesten zen, Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinen Foru Katastroari buruzko maiatzaren 18ko 3/2016 Foru Arauaren 47.3 artikuluan ezarritakoa betez.

Erabakitako ez onartzea honela arrazoitzen zuen:

*"Aipatutako araudiaren arabera, Zerga Administrazioak bere eskumenak erabiliz egindako jarduerei buruzko txosten historikoak egitea ez da administratuei laguntzeko eskubidea. Beste alde batetik, Katastro eta Balorazio Zerbitzuak ezin izango luke zerbitzu hori eman bere eskumeneko zereginak gauzatzean ematen dituen zerbitzuen funtzionamenduaren eraginkortasunari eragin gabe."*

PRIMERO.- El 21 de junio de 2022, , actuando como representante de

dirigió solicitud de información pública a la Diputación Foral de Bizkaia, en la que solicitaba que le fuera facilitada "(…) *una copia íntegra, gráfica y documental del expediente catastral de las parcelas de garaje números 8 y 9 identificadas con los números fijos N9379825S y N9379826D, en el número 5 de la calle Juan Calzada de Gernika-Lumo, desde su "alta" en el Catastro hasta la actualidad, recogiendo, en su caso, en la información catastral solicitada, los cambios que se hayan podido producir desde el "alta" de dichos elementos hasta la actualidad.*"

SEGUNDO. El 14 de julio de 2022, el Jefe del Servicio de Catastro y Valoración dictó resolución por la que desestimaba la anterior solicitud, al amparo d lo establecido en el artículo 47.3 de la Norma Foral 3/2016, de 18 de mayo, del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia.

La desestimación acordada, razonaba la misma en los siguientes términos:

*"De conformidad con la normativa referida, la elaboración de informes históricos por parte de la Administración tributaria sobre las actuaciones realizadas en el ejercicio de sus competencias no es un derecho que asista a los administrados. Por otra parte, la prestación de este servicio por parte del Servicio de Catastro y Valoración no sería posible sin que se viera afectada la eficacia del funcionamiento de los servicios que presta en el ejercicio de las tareas propias de su competencia.*

HIRUGARRENA.- 2022ko uztailaren 29an,

**TERCERO**. - El día 29 de julio de 2022, actuando como representante de

ordezkari moduan jardunez, erreklamazioa aurkeztu zuen Batzorde honetan. Erreklamazio horretan adierazten du jasotako oinarri juridikoa ez dela egokia antolamendu juridikorako eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea arautzen duen araudirako, eta horien artean Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua aipatzen du eta, zehatzago esanda, 18. artikulua, zeinak 1. atalean ezartzen baitu informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzeko aukera, foru arauan bertan eta gaia arautzen duen legeria orokorrean jasotakoaren arabera, eta hurrengo atalean gaineratzen baitu eskubide hori gauzatzeko ez dela inolako motibaziorik beharko.

, presenta reclamación ante esta Comisión, en la que manifiesta que la fundamentación jurídica recibida no es la adecuada al ordenamiento jurídico y a la normativa reguladora del derecho de acceso a la información pública, entre la que cita la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia y, más concretamente, su artículo 18, el cual establece en su apartado 1 la posibilidad del ejercicio del derecho al acceso a la información pública en los términos recogidos en la propia Norma Foral y en la legislación general reguladora de la materia, añadiendo el apartado siguiente que tal ejercicio no requerirá ningún tipo de motivación.

Erreklamaziogileak bere idazkian adierazten duenez: "*egindako informazio publikoaren eskaera (…) Administrazioaren esku dauden dokumentu eta artxiboei buruzkoa da, eta datu horiek nire ordezkatuei dagozkie; eskatutako informazioa dokumentu zehatz eta jakinetan jasotzen da (ez eta Administrazioak dokumentu horiek bildu eta helaraztea baino egin behar.*"

Señala el reclamante en su escrito que: "*La solicitud de información pública efectuada (…) hace referencia a documentos y archivos que obran en poder de la Administración, datos que conciernen a mis representadas, consistiendo la inforamción solicitada en documentos concretos y determinados (que no informes) que solo requiern de la Administración su recopilación y traslado.*"

Eta ebazpenean jasotako xede juridikoei dagokienez, honako hau gaineratzen du:
"Oinarri" horiek kontuan hartuta bi alderdi azpimarratu behar dira:
*1. Oinarri horiek ez dira aipatzen edo azaltzen idazki honen LEHENENGO alegazioan adierazitako legerian, eta ez dira kontuan hartzen sarbide-eskubide moduan, ez informazio-eskaera ez onartzeko arrazoi gisa, ezta ukatzeko arrazoi gisa ere.*

Y añade, respecto a los fundamentos jurídicos contenidos en la resolución:
"A la vista de tales "fundamentos", se quieren destacar dos cuestiones:
1ª. *Tales fundamentos no son ni siquiera mencionados o aludidos en la legislación indicada en la alegación PRIMERA de este escrito, ni como límites del derecho de acceso, ni como motivo de inadmisión de la solicitud de información ni como motivos de denegación.*

*2. Ez dago "arrazoi" zehatzik, nire ordezkatuei dagokienez, eskaeraren "ezespena" oinarritzeko, baizik eta Katastro Zerbitzuaren funtzionamenduaren gorabeherei buruzko aipamen orokor bat, eta ez dago jasota horiek egiazkoak direnik eta islatuko luketen gauza bakarra zerbitzu horren "funtzionamendu txarra" baino ez litzateke izango, hau da, oinarrizko eskubide bat urratzeko oinarri gisa erabili ezin diren gaiak, hala nola informazio publikoa eskuratzeko eskubidea, are gehiago "sarbidea ukatzea... salbuespenezkoa izango denean eta mugak era murriztailean interpretatu beharko direnean (Bizkaiko gardentasunari buruzko 1/2016 Foru Arauaren 24. artikulua)."*

*2ª. No existe "motivación" concreta, referida a mis representadas, para fundamentar la "desestimación" d la solicitud, sino una alusión genérica a las vicisitudes del funcionamiento del Servicio de Catastro que ni consta que sean ciertas ni reflejarían otra cosa que no fuera "un mal funcionamiento" del tal Servicio, cuestiones que no pueden esgrimirse como "fundamento" para conculcar un derecho básico como lo es el derecho de acceso a la información pública, máxime cuando la "denegación del acceso … tendrá carácter excepcional y los límites deberán ser interpretados de forma restrictiva" (artículo 24 de la Norma Foral 1/2016, de transparencia de Bizkaia)."*

<u>LAUGARRENA</u>.- 2022ko urriaren 25ean, Batzorde honek Katastroko eta Balorazio zerbitzuburuaren jakinarazpena jaso zuen. Horren arabera zerbitzu horrek eskatutako informazioa bidali dio

<u>CUARTO</u>. - El 25 de octubre de 2022 esta Comisión recibe comunicación del Jefe de Servicio de Catastro y Valoración en el que se señala que desde dicho Servicio se le ha enviado a la información que solicitaba.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

<u>LEHENENGOA</u>.- Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordea Bizkaiko Gardentasunari buruzko 2016ko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 27. artikuluaren bidez sortu zen.

Foru Arau honen 29.1.1 artikuluaren arabera, 2. artikuluari lotuta, biak ala biak foru-arau honi datxezkiola, Erreklamazio Batzordeak eskumena izango du Bizkaiko Foru Aldundiaren eta foru-erakunde autonomiadunen, foru-enpresen erakunde publikoen, foru-merkataritzako sozietateen, foru-fundazioen eta foru-partzuergoen eta zuzenbide publikoko

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

<u>PRIMERO</u>. La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia se crea por el artículo 27 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia.

De conformidad con el artículo 29.1.1, en relación con el artículo 2, ambos de esta Norma Foral, la Comisión de Reclamaciones será la competente para resolver las reclamaciones frente a la denegación expresa o presunta del derecho de acceso a la información pública de la Diputación Foral de Bizkaia y los organismos autónomos forales, las

beste foru-erakunde batzuen informazio publikoa eskuratzeko eskubidea berariaz edo ustez ukatzearen aurkako erreklamazioak ebazteko.

entidades públicas empresariales forales, las sociedades mercantiles forales, las fundaciones forales y los consorcios forales y otros entes forales de derecho público distintos de los mencionados anteriormente.

Beste alde batetik, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordearen antolaketa eta funtzionamenduari buruzko Erregelamenduak, uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren bidez onartuak, bere 18. artikuluan ezartzen du, besteak beste, Batzordearen Osoko Bilkuraren eskumena dela: *"a) Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzea tazituki zein espresuki ukatzea dela-eta aurkezten diren erreklamazioak ebaztea, 1/2016 Foru Arauan ezarritakoaren arabera."*

Por su parte, el Reglamento de organización y funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio (*"Decreto Foral 128/2016"*), establece en su artículo 18 que, entre otras, es competencia del Pleno de la Comisión: *"a) Resolver las reclamaciones contra la denegación expresa o tácita del ejercicio del derecho de acceso a la información pública en los términos establecidos en la Norma Foral 1/2016."*

<u>BIGARRENA</u>.- Jaso ditugun aurrekarien arabera, errekurtsogileak egindako informazio-eskaera ezetsi egin zen, Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinen Foru Katastroari buruzko maiatzaren 18ko 3/2016 Foru Arauaren 47.3 artikuluan ezarritakoarekin bat.

<u>SEGUNDO</u>. De acuerdo con los antecedentes que hemos recogido, la solicitud de información realizada por el recurrente fue desestimada al amparo de lo establecido en el artículo 47.3. de la Norma Foral 3/2016, de 18 de mayo, del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia.

<u>HIRUGARRENA</u>.- Hala ere, 2022ko urriaren 24ko idazki baten bidez, Katastro eta Balorazio Zerbitzuak idazkia bidali zion Batzorde honi, non jakinarazten baitzitzaion zerbitzu horrek urriaren 5ean bidali ziola errekurtsogileari eskatutako informazioa, higiezinen katastroaren esku zegoena, eta interesdunak urriaren 7an jaso zuela.

<u>TERCERO</u>. No obstante, mediante escrito de fecha 24 de octubre de 2022 el Servicio de Catastro y Valoración remitió escrito a esta Comisión en la que se le comunicaba que, en fecha 5 de octubre, el citado Servicio remitió al recurrente la información solicitada, que obraba en poder del Catastro Inmobiliario, constandole la recepción por parte de este último en fecha 7 de octubre.

<u>LAUGARRENA</u>.- Aurreko hori guztia

<u>CUARTO</u>.- A la vista de lo anterior se debe

kontuan hartuta, uzia bete dela ondorioztatu behar da, eskatu zuen eta Katastroan zegoen informazioa jakinarazi zaiolako.

Ondorioz, bidezkoa da erreklamazio hau artxibatzea, bere xedea gerora galtzeagatik.

## EBAZPENA

Lehenengoa.- Artxibatzea izenean, Katastroaren eta Zerbitzuen zuzendari nagusiaren 2022ko uztailaren 14ko ebazpenaren aurka sustatutako 8/2022 erreklamazioaren jarduketak. Ebazpen horren bidez ezetsi egin zen informazio publikoa eskuratzeko 2022ko ekainaren 21ean aurkeztutako eskaera.

Bigarrena.- Ebazpen hau jakinaraztea errekurtsogileari eta Ogasun eta Finantza Saileko Katastroaren eta Zerbitzuen Zuzendaritza Nagusiari. Halaber, Ahaldun Nagusiari Laguntzeko Unitateko Estrategia Digital eta Korporatiborako Kabineteko Gobernu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusiari jakinaraziko zaio.

Hirugarrena.- Ebazpen hau behin betikoa da; administrazio-bidea amaitzen du eta, horren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, EAEko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan, BI HILABETEKO epean, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera.

Hori guztia, Bizkaiko Foru Aldundiaren

concluir que la pretensión de ha resultado satisfecha, al habérsele comunicado la información obrante en el Servicio de Catastro y Valoración que había solicitado.

En consecuencia, procede el archivo de la presente reclamación por pérdida sobrevenida de su objeto.

## RESOLUCIÓN

Primero. Archivar las actuaciones de la reclamación nº 8/2022 promovida por , en nombre y representación de contra la resolución de 14 de julio de 2022, del Jefe del Servicio de Catastro y Valoración por la que se desestimó su solicitud de acceso a Información Pública presentada el 21 de junio de 2022.

Segundo. Notificar esta resolución al recurrente y a la Dirección General de Catastro y Servicios del Departamento de Hacienda y Finanzas. Asimismo, se comunicará a la Dirección General de Buen Gobierno y Transparencia del Gabinete de Estrategia Digital y Corporativa de la Unidad de Apoyo al Diputado General.

Tercero. La presente resolución, que es definitiva, agota la vía administrativa y contra la misma se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de DOS MESES a contar del día siguiente al de su notificación.

Todo ello de conformidad con lo dispuesto

eta Bizkaiko foru-sektore publikoko erakundeen Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordearen antolakuntza- eta jarduera-araudia onesten duen uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren 27. artikuluan eta administrazioarekiko auziak arautzen dituen jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/98 Legearen 10. eta 46. artikuluetan xedatutakoarekin ados egonik.

en el artículo 27 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia y de las entidades del sector público foral de Bizkaia, y en los artículos 10 y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.